

**2017ko uztailaren 10etik 15era** bitartean buletinetan argitaratutako interes orokorreko xedapenak (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBEO)

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

### Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017/07/10

---

- 2017ko ekainaren 22ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita "Complemento retributivo de la Comunidad Autónoma de La Rioja" ordainsari osagarriari buruzko akordioa, Arautu gabeko irakaskuntza eta prestakuntzaren VI. hitzarmenari lotua. 8071 xedapena – 3 or.
- 2017ko ekainaren 27ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Merkataritzaren I. Esparru Akordioaren aurreraeragina luzatzeko akordioa. 8074 xedapena – 3 or.

### Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017/07/12

---

- 2017ko ekainaren 19ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Contac center sektorearen (lehen, telemarketinga) Estatuko II. hitzarmen kolektiboa. 8140 xedapena – 47 or.

### Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017/07/14

---

- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira Itsas akuikulturarako IV. hitzarmen kolektiboari dagozkion 2017rako soldata taulak. 8287 xedapena – 3 or.

## II.- XEDAPEN ARAUTZAILEAK:

2017/07/13

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Estatuko Aurrekontu Orokorrak.-** Akatsen zuzenketa, ekainaren 27ko 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legearena. 8118 xedapena – 1 or.
- **PRESIDENTETZA ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. – Eguratsaren kutsadura. Diru-laguntzak.** – 665/2017 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, honako hau aldatzen duena: abenduaren 1eko 1055/2014 Errege Dekretua, zeinaren bidez sortzen baita negutegi efektuko gasen zeharkako isurien kostuak ordaintzeko mekanismo bat “karbono ihesa” izateko arriskua handikotzat hartzen diren industriako sektore eta azpisektore jakin batzuetako enpresen negutegi efektuko gasen zeharkako isurien kostuak ordaintzeko eta onartzen baitira diru-laguntzak emateko 2014ko eta 2015eko ekitaldietarako oinarri arautzaileak eta luzatzen baita haien indarraldia 2020ko abenduaren 31ra arte. 8120 xedapena – 8 or.

2017/07/13

- **SUSTAPEN MINISTERIOA. – Salgai arriskutsuak airez garraiatzea.** – 2017ko ekainaren 14ko Ebazpena, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira salgai arriskutsuak airez modu seguruan garraiatzeko jarraibide teknikoak (OACI 9284/AN/905 dokumentua). 8174 xedapena – 1030 or.
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.- Atzerritarrak.-** 2017ko ekainaren 23ko Ebazpena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Betetzeko zailak diren lanbideen 2017ko hirugarren hiruhilekorako katalogoa. 8203 xedapena – 2 or.

2017/07/14

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.- Administrazio Publikoa. Hautaketa probak.-** 2017ko uztailaren 6ko Ebazpena, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Presidentetzarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2012ko irailaren 18koa, hautaketa prozesuetarako onarpen eskariak sinadura elektronikoa aurreratuz bestelako identifikazio eta egiaztapen sistema elektronikoen bidez aurkezteko prozedurak eta azterketa eskubideen tasaren likidazioa onartzen dituen. 8241 xedapena – 4 or.

2017/07/15

- **PRESIDENTETZA ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. – Lanbide Heziketa.** - 705/2017 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako errege dekretu hauek: otsailaren 4ko Errege Dekretua 140/2011, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Osasun arloko Lanbide familiako lau kualifikazio profesional ezarrita, eta urriaren 31ko 1551/2011 Errege Dekretua, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Nekazaritzako lanbide familiari dagozkion bost kualifikazio profesional ezarrita. 8302 xedapena – 41 or.

**2017/07/14**

- **LEHENDAKARITZA.-** EBAZPENA, 2017ko uztailaren 4koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez Berdintasunaren aldeko 2017ko Emakunde Sarirako deialdia egiten baita. 3538 **xedapena**

**ALHAO (Arabako LHren Aldizkari Ofiziala)**

**BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**EBEO (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala)**



**Kepa Bilbao Zubiaur**

Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95

e-maila: [informacion.juridica@mutualia.es](mailto:informacion.juridica@mutualia.es)



**MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO 26 - 48009 BILBAO**